

Getxoko liburutegiek ordaindu beharreko kanonaren aurka agertuko dira Liburu Azokan

GETXO.- Gaur, apirilak 20, hasi egin den Getxoko Liburu Azokan, bertoko udal liburutegiek Europako 92/100 arteztarauan ezarritako ordaindu beharreko kanonaren aurkako esku-orriak banatuko dituzte. Arau honen arabera, liburutegigiei egile-eskubideak ordaintzeko agintzen zaie, egiten dituzten maileguengatik. Horri buruzko informazioaz gain, azokako bisitariek posta-txartelak izango dituzte eskura kanpaina horren aldeko jarrera hartzeko. Bildutako txartel guztiak Senatura bidaliko dira, ordaindu beharreko kanonaren ezarpenari buruz hausnartu egin dezan. Europa osoan zabaldu den kanonaren aurkako kanpaina erabiltzen diren argudioen artean, honako hau azpimarratu behar da: UNESCOk Kultur Aniztasunari buruzko Adierazpen Unibertsalean dioenez, kultur zerbitzu eta ondasunek "nortasuna, balioak eta zentzua" daukate eta "ez dira merkatugaitzat edo kontsumo-ondasuntzat erabili behar, beste batzuk bezala".

Bestalde, kanona ezartzeak eragina ekarriko luke liburuak erosteko aurrekontuetan, idazleak nahiz erabiltzaileak kaltetuz. Irakurketa-indize txikia eta liburutegigietarako gastu sozial urria dauzkan egungo gizartean, neurri honek kalte nabarmenak sortuko ditu.

Horrezaz gain, liburutegiek egile eskubideak ordaintzen dituzte lanen ale bat erosten duten bakoitzean. Beraz, kanonak kontzeptu bera birritan ordaintzea dakar. Halaber, Estatuak, autonomia erkidegoek, aldundiek, udalek eta bestelako erakunde publikoek egileei eta argitaratzaileei ematen dizkieten laguntzak herritarrek ordaintzen dituzte, zergen bidez. Ez da bidezkoa, beraz, berriro ere ordaindu behar izatea liburutegietan liburu bat maileguan hartzeagatik.